



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

Data: 2017/10/22

Bilera zenbakia: 9

Bilera ordua eta lekua: 19:00etan udaletxean

Parte-hartzaileak: Ainhoa, Nekane, Jose Luis, Amaia, Maite, Iker, Rosi eta Maddi

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. KULTUR AGENDAREN ERREPASOA

- *Gaztaina Jana (Guraso elkarte)*

Beste urteetan baino jende gutxiago sumatu dela diote. Eguraldia ere ez zen lagun izan eta horregatik, mendi bueltaren orde, film bat ikusi zuten kulturgunean. Gainera, gaztaina jana ere frontoi barruan egin behar izan zuten eguraldia zela eta.

- *Kantu afaria (Kultura batzordea)*

Oso ondo atera zen. Afaria primerakoa eta 50 pertsona bildu ginen, kopuru aldetik ondo. Ikerrek esan du, elkarteari baimena eskatu baino lehen tiketak salgai zeudela, beraz hurrengo urterako hori kontutan izan beharko dugu.

- *Antzerkia (Kultura batzordea)*

Oso berezia izan zen. Zertaz zihoan harrapatzea kostatu zitzaigun. Erabiltzen zuen euskara berezia zen eta informazio asko ematen zuen oso denbora gutxian. Jende gutxi elkartu ginen, haurrentzako ez zenez jendea ez zen etorri.

Aurten antzerki bat ekartzeko zailtasun handiak izan ditugu. Aurrekontua mugatua dugu eta gaur egun eskaintzen diren ekitaldiak ez dira batere merkeak. Gainera, denboraz juxtu ibili gara.

Hurrengo urtean goizago hasi beharko dugu begiratzen, maiatza aldera.

2. 2017ko HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BALORAZIOA

Lehenik eta behin 2017an zehar landu ditugun **gaien errepaso** txiki bat egin dugu, memoriak freskatzeko.

Hemendik abiatuta **gaien inguruko balorazio** bat egin dugu, hau da, interesgarrik, erakargarriak, baliagarriak... izan diren baloratzeko.

Aipatu da, momentu konkretu batzuetan gaiak bilatzen aritzen garela eta egutegia bete beharrean aukeratzen ditugula gaiak. Hala ere, aurten jorratutakoak egunerokotasunarekin zerikusia duten gaiak izan dira eta horrek garrantzi handia izan du, izan ere, esanguratsuak izan dira. Adibidez, abuztuko jaien inguruan, aspaldidanik zetorren gaia izanik, erabaki bat hartzea lortu da batzordearen bitartez. Edota kirol eskaintzaren inguruan, hutsuneak baditugula jakinda ere, daukagun kirol eskaintza bilduz artikulu bat argitaratu dugu.

Aurrekontuen inguruan ere, gai astuna dela kontuan izanik, guztion artean adostasun batera heltzea lortu dugu.

Bestalde, euskararen kasuan, beraiek egiten zutena bota zuten baina agian batzordeak ez zuek jakin honi indarra nola eman. Proposamenak egin ziren baina gehiegi inplikatu gabe. Kontuan izanda euskara zeharkako gai bat dela, elkarte guztiek sentitu beharko genuke honekiko konpromisoa (horregatik ekarri zen gaia mahaira).

Bilera kopuruari dagokionez, festa inguruko bilera hori (irailekoa) kentzea ongi ikusten da, azken finean batzordean gaudenok jai batzordean ere parte hartzen dugu eta biak batera gehitxo da. Erabaki hau hurrengo urtean ere mantentzekotan geratu gara.

Kualitatiboki, nabari da jende kopurua jaitsi egin dela eta gaur egun parte hartzen duten batzuk, diru laguntza bati lotuta parte hartzen dutela. Hala ere, kontuan izan behar dugu lehen eragile desberdinek ekintzak egun berdinerako antolatu ohi zituztela, koordinazio falta zela eta. Egun, bilera hauekin, hori ekiditea lortu da eta gainera, elkar laguntzeko gune gisa ere ikusten da.

Azkenik, **balorazio orokor** gisa, 2012ko ekintza plana hartu dugu eta ikusi dugu, hor agertzen diren ekintza asko eginda daudela jada. Gainera, egiteko geratzen direnak, gaur egun sortuta ditugun talde edota zerbitzuen bitartez egin daitezke (miuntzalagun - euskara, haurrentzako aisialdia - gaztelekua, eskolaren iraunkortasuna guraso elkarte + udala...). Beraz, ikusten da gauzak egin ditugula eta herri bizitzak kohesiorako balio izan duela. Gainera, hemendik abiatuta talde desberdinak sortu dira eta horrek, ditugun erronkak bideratzen laguntzen digu.

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera 2018an izango da.		